

Goierriko Barne Txapelketa

2017/12/20

Atzo, Abenduak 19, Goierriko Kanpuseko barne txapelketak jokatu ziren areto futboleko eta 3x3 modalitateetan.

60 pertsona inguru bildu ziren barne txapelketa jokatzeko asmotan Majori kiroldegian. Areto futboleko, 7 taldek parte hartu zuten eta 3x3an 3 taldek.

Areto futboleko finala Sanber eta 3.maila taldeek jokatu zuten. Partidua 3-3 amaitu eta gero, penaltietan SANBER taldea atera zen garaile.

Saskibaloian, triangular bat jokatu zuten hiru taldeek eta bi talde onenek finala jokatu zuten. Finala ELO vs Arrasantes izan zen. Arrasantes taldea gailendu zen 14-9ko emaitzarekin.

Urtarrilean, bi talde hauek, GEPeko txapelketa nagusia jokatu dute Arrasaten IDEOko eta Arrasateko kanpuseko irabazleen aurka.

GEP-eko txapelketaren irabazlea MONDRAGON UNIBERTSITATEko unibertsitateko txapelketa jokatzeko sailkatuko da, non HUHEZI eta ENPRESAGINTZA-ren aurka lehiatu beharko den.

Behin MONDRAGON UNIBERTSITATEko txapelketa jokatuta, hemengo irabazlea Euskadiko txapelketa jokatzera joango da, MONDRAGON UNIBERTSITATEA ordezkatuz.

Zorionak parte hartzaile guztiei!

